

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MAÑUETAKO UDALA

2019ko zerga erroldak onestea

Udalbatzak, 2019ko otsailaren 25eko osoko bilkuran, zerga hauek ordaindu behar dituztenen 2019ko erroldak onestea erabaki zuen:

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

Etxez etxeko zabor bilketa zerbitzuaren tasa.

Zerga errolda horiek eta espedienteak hamabost egun baliodunez jarriko dira jendaurrean, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedienteak aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, udal idazkaritzan. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuko dira beste erabakirik onartu beharrik gabe, eta haiek kobratzeari ekingo zaio, borondatezko epean. Horretarako, bi hilabete izango dira. Bi hilabete horiek igaro eta ordaindu ez bada, zordunei premiamendu bidean kobratuko zaie, dagozkion errekargu, berandutze interes eta kostekin, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Mañueta, 2019ko martxoaren 11

Alkatea

FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS